

webgunea

Ruper Ordorikaren diskoen azalak eta hainbat xehetasun

www.ruperordorika.com helbidean Oñatiko kantariari eskainitako webgunea bisita daiteke. Ordorikaren disko guztien azalak agertzen dira bertan, eta lan bakoitzean zein kanta dauden ikus daitezke. Era berean, Ordorikaren bizitzari buruzko hainbat xehetasun jasotzen dira, eta bere argazki zahar batzuk ere badaude.

Helbidea: www.ruperordorika.com



argitalpena

Autoa eta Akazazte taldeen diskoen buruzko erreportaia 'Maxixatzen'-en

Azkoitiko *Maxixatzen* aldizkariako azkeneko alean, Matadeiko lokaleko estudioan grabatu dituzten bi diskoen berri ematen dute: Autoa taldearen *Autoa* eta Akazazte taldearen *X*. Autoarentzat estreinako lana da, eta Akazaztearentzat laugarrena. Bestetik, ale berean, Floreaga Ikastetxeko haurtzaindegi berriari buruzko xehetasunak ematen dituzte.



Argitaratzailea: **Azkoitiko Maxixatzen Euskara Elkarte**

erakusketak

BALMASEDA. 'XXI. mendeko idazle berriak'. Ateneoan, otsailaren 24a arte.

BARAÑAIN. 'Guarani'. Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa. Otsailaren 21a arte, Kultur Etxean.

BILBO. Maite Martinez de Arenaza eta Yunta artisten margolanak. Otsailaren 18a arte, Aritza galerian.

'H.E.D.B.' Luis Candaudapen azken bost urteko margolanak Windsor Kulturagintza galerian izanen dira otsailaren 28a arte.

Angeles Santosen margolanak. BBK erakusketa aretoan (Gran Via, 32) izanen dira martxoaren 2a arte.

'Senegal'. Jose Luis Irigoien argazkiak. La Taberna de los Mundos tabernan, martxoaren 3a arte.

'Si levantara la cabeza'. Angel Garrazaren erakusketa Espacio Marzana galerian izanen da martxoaren 25a arte.

'On my own'. Manu Arregiren bideoak Bilbaoarte aretoan egonen dira ikusgai martxoaren 28a arte.

BURLATA. 'Marruecos, Alto Atlas: valles, pueblos y gentes'. Javier Garretaren argazki erakusketa. Otsailaren 18a arte, Joaquín Azkarateko kultur aretoan.

DONOSTIA. 'Bestelako Meninak'. Martxoaren 2ra bitartean, Kursaalako Kutzaren Kubo Aretoan. Woman Together erakundearen eskutik.

Julian Ugarteren margolanak. San Telmo museoan izanen dira apirilaren 6a arte.

'Arkitektura eszentrikoak'. James Casebere, Magdalena Jetelova, Tadashi Kawamata, Georges Rousse eta Edwin Zwakman artisten lanak biltzen dituen erakusketa. Koldo Mitxelena kulturunean, apirilaren 19a arte.

'Nere txalupatik'. Mikel Rikondoren argazkiak Aquariumean izanen dira apirilaren 27a arte.

DURANGO. Paco Aguilarren lan grafikoa. Beitu galerian egonen da martxoaren 1a arte.

EIBAR. Juan Sagastizabalen margolanak. Portalean izanen dira otsailaren 23a arte.

ELGOIBAR. Matias Alonso

antzerkia

'Konbat. Beltza eta txakurrak borrokan'. Gaur, Bilboko Bilborock aretoan (20.30ean).


Kapitalismoaren kolonialismo berria

Erredakzioa | DONOSTIA

Afrikako hainbat lurraldetan dauden kolonialismo berria eta arrazakeria jorratzen ditu gaur gauean Maskarada taldeak Bilborock aretoan interpretatuko duen antzezlanak: *Konbat. Beltza eta txakurrak borrokan*. Afrikako herrialderen batean, Frantziako enpresa batek egiten duen esplotazioa erakusten dute bertan; hau da, gaur egungo kolonialismoa.

Bernard Marie Koltès antzerkigile frantziarrak idatzitako obra da, eta Maskarada taldeak urtarilean taularatu zuen lehen aldiz euskarazko bertsioa. Carlos Paneraren zuzendaritzapean, Patxi Ugaldek, Esther Uriak, Manex Fuchsek eta Jon Gaubek interpretatzen dituzte antzezlanean agertzen diren lau pertsonaiak.

Enpresaburu zurien eta horien agindupean dauden langile afrikarren arteko kontrastea, present dago obra guztian. Alde



Maskarada taldearen *Konbat. Beltza eta txakurrak borrokan* obraren irudi bat.

batetik zuriak daude: Horn enpresako lanen arduraduna, eta Cal ingeniaria; horiek boterearekin identifika daitezke. Beraien ondoan, Paristik ekarritako neska lirain eta gaztea dute. Beste aldean, beraientzat lan

egiten duten afrikarren egoera dago. Afrikar beltz horietako batek eragingo du istorioko gatazka, bere anaiaren gorpua erreklamatzeko duenean.

Dramaz betetako istorio horren atzean, arrazakeria eta es-

plotazioaz gain, gaur egungo gai ugari ezkututzen dira: arrazen arteko desberdintasunak, kapitalismoaren ankerkeria eta gaur egungo emakume askok betetzen duten rol dekoratiboa, besteak beste.

Andresen margolanak. Okendo galerian, otsailaren 22a arte.

GASTEIZ. Matias Alonso

Andresen margolanak. Okendo galerian, otsailaren 22a arte.

'El decalogo'. Brenan Duarteren argazki erakusketa. Arabako Artxibo Historikoan, otsailaren 16a arte.

GERNIKA. 'Hegazkingintzaren mendea'. Otsailaren 18a arte, Kultur Etxean.

'Kemenak. Gaintzeko bultzada'. Juan Armentiak Sydneyko Joko Paralimpikoetan eginitako argazkiak otsailaren 28a arte egonen dira Elai-Alai aretoan.

HERNANI. Luisilloren egur erakusketa. Andragoto kultur elkartearen, otsailaren 28a arte.

IRUN. 'Sei emakume'. Helena Elbustoren, Maider Goikoetxearen,

Ana Izuraren, Carmen Mauraren, Carolina Lazkonetegiaren eta Susana Zaldibarren artelanak Amaia aretoan izanen dira martxoaren 2a arte.

IRUÑA. 'Hecho en Cuba'. Jose Maria Diaz-Marotok Kuban eginitako argazkiak Contraluz galerian (Urrobi ibaia) izanen dira martxoaren 4a arte.

SOPUERTA. 'Etxeko gaztagintza eta guringintza'. Erakusketa Enkarterrietako museoan izanen da martxoaren 10 arte.

TOLOSA. 'El Pinacate, biosferako erreserba' eta 'Alta, basamortu handia'. Cecilia G. de Gilarte idazle tolosarraren idazlanek osaturiko erakusketa otsaila bukatu arte egonen da helduen eskolan.

'Sexualitate'. Argazki erakusketa. Aranburu jauregian, martxoaren 1a arte.

USURBIL. Herriko argazkiak. 50eko hamarkadatik 80kora arteko 20 argazki, otsailaren 21a arte, Aitzaga tabernan.

ZANGOZA. Nicolas Ardanzaren argazkiak. Kultur Etxean izanen dira otsailaren 18a arte.

ZUMARRAGA. Susana Garciaren margolanak. Itarte Etxean, otsailaren 14tik 23ra.

lehiaketak

ARANTZA. Herriak eta Hizkuntzak literatur lehiaketa. Lehiaketaren gaia «herriak eta hizkuntzak» da. Genero guztiak onartuko dira: olerkia, bertso-papera, ipuina eta saiakera. Lanak euskarazkoak, jatorrizkoak eta argitaragabeak izanen dira. Lanak

emateko epea 2003ko martxoaren 29an akituko da. Informazio zehatzagoa nahiz zabalagoa jaso nahi izanez gero, 948-634125 telefonora deitu.

AZKOITIA. Martxoak 8rako kartel lehiaketa. Gaia eta estiloa libreak dira. Bi kolore erabili behar dira. Neurria: A3. Leloak garrantzia du. Saria: 150 euro. Otsailaren 21a baino lehenagotik bidali behar zaizkio Urola Kostako Emakume Taldeari (139 posta kutxa, 20720 Azkoitia).

AZPEITIA. Erriarraitz Bertso-Paper Lehiaketa. Urola erdialdeko edonork har dezake parte. 18 urtetik behetikok, gutxienez, 6 bertso egiten dituzte, eta 18 urtetik goitikok, gutxienez, 8. Gaia librea da. Bertsoak martxoaren 8a baino lehen eman behar dira. Erriarraitz

Bertsozale Elkarte, 265 postakutxa, 20730 Azpeitia.

BASAURI. Ganorabako komiki lehiaketa. Gaia librea da, baina pertsonaia guztiak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute. Lan bakoitzak A4 neurriko lau orri izanen ditu gehienez. Zuri-beltzean edo koloretan izaten ahal dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Kultur Etxean eman behar dira martxoaren 31 baino lehen.

BEASAIN. Neguko Bertso-paper Lehiaketa. 18 urtetik behetikok gutxienez bost bertso egiten dituzte, eta gehienez, zortzi; 18 urtetik goitikok gutxienez zortzi bertso, eta gehienez, hamabi. Bertsoak gai eta doinu libreak jarriko dira. Otsailaren 20a baino lehen Arrano Kultur Elkartearen.